

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

## Matemagia



ndo ezagutzen dudan gay-les mugimenduan, bi hamarkadatan EHGAM izan zen ia antolakunde bakarra Euskal Herri osoan. Honek liskarrak eragiten zituen taldearen baitan, borroka ulertzeko modu diferenteak zeudelako. Bazirudien ona izango zela hainbat elkarte egotea, zeinak bere lan-eremu eta ereduarekin. Egun askotarikoak eta kontaezinak dira esparru horretan mugitzen diren taldeak (agian asko izateagatik baino, etengabe sortu eta desagertu egiten direlako, baina tira). Halere, lehen baino eraginkorragoak al gara? Nik neuk, behintzat, zalantzak ditut. Aniztasuna, duda barik, onuragarria izaten da, beti ere elkarrengandik ikasteko balio badu; elkarren errespetuan aritzen bagara, eta abar. *Lgbtq...* letrazopa amaiezinak adierazi nahi duen alorra gizarteko beste edozein bezain anitza da, eta errealtate horrek isla izateak berak ona izan behar luke. Esperientziak erakutsi digu, oster, faktore asko hartu behar direla kontuan; biderkatze hutsak ez duela bermatzen berez arrakasta. Batze hutsak bermatzen ez duen bezala. Bestelako esparru bati erreparatuz gero ere, politikarenari hain zuzen, antzera gertatuko zaigu. Euskal alderdi andana ezagutu dugu euskaldunok., eta askotxotan ikusi dugu nola bi alderdik koalizioa



IÑIGO AZKONA

osaturik banaka aurkeztu balira baino emaitza txarragoak lortu dituzten. Ustez batuketa zena, nolabait kenketa bihurtu.

Matematikaren arabera, bat gehi bat bi ei dira; baina, ikusi dugunez, batzuetan ez da horrela izaten, are gutxiago politologian edota soziologian. Azken hauteskundeak ere erakusgarri: ustez batuketa zena biderketa bilakatu da.

Ikus-entzuleak magia gertatu delako irudipena izan dezan, kalkulua eta estatistika erabiliz egiten diren truku-bildumari esaten zaio matemagia. Matemagia izan al da, beraz? Ez. Hemen *trukurik* ez. Edozein soziologok edo politologok interpretatzen jakin beharko lukeen bezala, herriaren parte gero eta handiago batek *Aski da!* oihukatzeke zeukan gogoaren adierazle baino ez da izan hauteskundeon emaitza; Madrilgo botere guztiek –hemengo askoren ezinbesteko laguntzarekin– historikoki –batez ere azken hamarkadan– burutu dituzten hamaika

bidegabekeriaren aurrean aldarri; giza-eskubide oinarrikoen eginak erasoen aurrean garrasi.

Beno, bai, baten batek matemagia (eta baita askoz maltzurragoak diren bestelako *truquak* ere) erabili, erabili duela aitortu behar Gasteizko gobernura iristeko, populazioaren babes ñimiño batekin. Baina hori beste gai bat da. ■

Edozein soziologok edo politologok interpretatzen jakin beharko lukeen bezala, herriaren parte gero eta handiago batek *Aski da!* oihukatzeke zeukan gogoaren adierazle baino ez da izan hauteskundeon emaitza

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



bizi duguna hedabideak su. Bateragunea da erdaldun kalakari emanek beren hiztegi biraozalean integratu duten hitza. Zentzu bakarreko erabilpenez gorriz azpimarratu dutena, itzulbiderik izan ez dezan amorraren kutxan sartu eta elektrikaz soldeatuz itxita mantendu nahi izango dutena. Ez dute lan erraza aditu ustekoek oro ETA dela preserbatibo zulatuz iritzi publikoa eratu nahi dutelarik. Auzitegi Nazionalako edozein kronikak, gezurrezkoenak ere, justu akusazioaren eskizofreniaren berri ematen du nahi gabe, errealtatea eta epaitu eta kontatu nahi

## Aste beroa

luketena ez dutela antzik garbi azaleratuz, hor akusatuek ETA baztertzea zutela beren estrategiaren oinarri ezin baitute estali, eta itxuraz, orain arte inork lortu izan ez zuena lortu ere lortu dutela. Nik, entrenatzaile kaskarraren antza hartzen diet hauei, dituenak baino ez dituen jokalaririk izan bitartean maite dituen, inoiz bereekin konforme ez dagoena. Argi da terrorista behar gaituztela, eraso inbaditzailea justiziaz eta demokraziaz janzteko motiboak behar dituzte eta etengabeko bonbardeo mediatikoan ari dira. Muntatu industria behar dute elikatu, eta ETArrik gabe bezerorik ez. Gezurra Getarin eta atarin. ■